

...eta **kitto!**

719 zkia. 2010-IV-30

ASTEKARIA

TOKIKOM

O
H
A
P
P
Y
D
A
Y

ITXAROPENA *ren azken geltokiraino*



Clinica Oftalmologica
RECALDE
Oftalmologi Klirika

MIOPIA EBAKUNTZAK
INTRALASE® FEMTOSEGUNDO LASERRAREKIN
FINANTZIAKETA EZIN HOBEA

Plaza Barria, 2 - 2º - Tfnoa.: 943 201 844

Gaur egun denok nahi dugu irribarre osasuntsu eta politaren jabe izan, baina horrelako irribarre lortzeko ez dira nahikoa tratamendu estetikoak. Hortzeria itsusia konpontzeko protesi-finkoak edo zorroak ipintzea baino zerbait gehiago behar da. Aho barruan, hortzaren oinarria den eta aparteko garrantzia duen atal bat badago: hortzoia. Horrek estetika eta osasuna dakarkio ahoari. Murillo doktorea periodontzian aditua eta Espainiako Periodontzia Elkartearen kide aktiboa da; horrez gain, periodontziako hainbat masterretako irakaslea ere bada eta berak azaldu digu zeinen garrantzitsua den hortzaren osasuna nola dagoen urtean behin begiratzea.

- Zergatik da horren garrantzitsua hortzolak zaintzea?

IRAZABAL HORTZ KLINIKAN hortzoia gerora egin beharreko edozein tratamendurako oinarritzat hartzen dugu, tratamendu horrek luzaroan irautea, eraginkorra eta estetikoa izatea nahi baldin badugu. Txantxarrak edo kariesak hortzei eragiten dien moduan, hortzoiak ere gaixotu egiten dira. Hondatzea 30 bat urteen inguruan hasten da eta, horren eraginez, horrenbeste kezka sortzen digun hezur-galera agertzen da. Denborak aurrera egin ahala, neurririk hartu ezean, hortzak jausten hasten dira. Hortzen erorketa horri deitzen diogu periodontitis edo piorrea. 30 urtetik gorako populazioaren %70etik gora arazo periodontalarekin bizi da eta, kasu gehienetan, ez daki.

- Arazorik dagoen antzemateko modurik badugu?

Arazoa hortzoiak odoletan has-tearekin batera agertzen da. Uste dugunaren kontra, hantura negatiboaren, gingibitisaren seinalea da hori. Horrek aurrera egiten badu, hezurra modu atzeraezinean galtzera ailegatu gaitzke (periodontitis). Jatorri bakterianoa duen gaixotasun honek osagai genetiko garrantzitsua du. Gaitz isil eta kronikoa da eta, beraz, begibistako ondorioak agertzerako oso berandu izaten da eta, gaixoak flemoia, hatsa, hortz luzeak edo hortz-mugimendua nabaritzen hasten denerako beranduegi izaten da. Periodontzian garrantzitsua garaiz egindako diagnostikoa da. Edo-



IRAZABAL

clínica dental

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.


Tel. 943 208552



ANTONIO MURILLO DOKTOREA:

KLINIKA HONETAN BAKTERIOAK ETA DNA BITARTEZ JOERA GENETIKOA ANZEMATEKO GAI DIREN PUNTA-PUNTAKO MAKINA ELEKTRONIKOAK ERABILTZEN DIRA DIAGNOSTIKOA EGITEKO

“Diagnostiko goiztiarra da hortzak ez galtzeko giltza”



GERO

Benetako pazientearen irudiak



LEHEN

zein arazoren inguruko diagnostikoa sasoiz egiten baldin badugu, modu eraginkorrean tratamendua emateko gai izango gara.

- Zuek, klinikan, nola egiten diezue aurre periodontziako gaitz?

Irazabal Hartz Klinikaren periodontzian abangoardian gaude: periodontitisa eragiten duten bakterioak eta DNA bitartez joera genetikoak antzemateko gai

diren punta-puntako makina elektronikoak erabiltzen ditugu diagnostikoa egiteko. Irazabal Hartz Klinikaren gaixoa tratatzeko modurik egokiena hozkada orekatzean datzala uste dugu. Horrela, berriz ere modu seguru eta eraginkorrean mastekatzea ahalbidetzaez gain, epe luzera aho-osasun eta estetika eman-go diogu pazienteari. Horregatik, gaixoari ahalik eta mailarik txikienean eragingo dioten tratamendu periodontalak sa-ri-

Zaindu beharrekoak

- Hortz-plaka edo lertzoa pilatzea.
- Hortz luzeak.
- Hortzoiak atzera egitea.
- Hortz-mugimendua.
- Odola botatzea.
- Hatsa.
- Zorne-poltsak.
- Lotutako GAIXOTASUNAK izatea: diabetesa, patologia koronarioa, tabakismoa...

tan protesi-finko edo zorroekin bateratzen ditugu, gure pazienteen premia estetiko zein funtzionalak asebetetzeko.

- Sendatzeko modurik badago?

Periontitisa, oraindik ere, gaitz sendaezina da, baina, hala ere, oso modu eraginkorrean sasoiz geratzeko gauza bagara. Baina, horretarako, lehenik eta behin tratamendua eta, ondoren epe labur, ertain eta luzera horri eustea beharrezkoa da. Periodontitisak oso lotura estua dauka diabetearekin, garaiz aurreko erditzearekin, patologia koronarioarekin, infartuekin... Osasunez nola gabiltzan jakiteko analitika egiteko ohitura daukagun moduan, urtean behin gure hortzoiak nola dauden begiratzera joan behar gara. Irazabal Hartz Klinikaren osasun periodontalaren inguruko azterketa egiteko beharrezkoa den teknologia osoa pazienteen zerbitzura ipintzen dugu.

PERIODONTITIS KASUETAKO ASKO KIRURGIA BARIK TRATATU DITZAKEGU



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Karmele Etxeberria

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

GALIKARA/GALIKUA.- Gaitz benereoa, purgazioak. Gaztelerazko 'chancro blando'. Pluralean erabiltzen dira. "Harek euki zittuan galikuak harek!".

GALOPAN.- Azkar, arin. Gaztelerazko 'al galope'. "Entzun eta galopan etorri da, bertan behera dana lagata".

ESKUTITZAK

UDAL EUSKALTEGIAREN ESKER ONA

Eskutitz honen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larunbatean, "Katuek bezala" **Lip-Dub**-aren grabazioan parte hartu zuten Euskaltegiko ikasleei (protagonista, katu, kirolari, pelukera, motor-dun, pasiatzaile, dotore, irakurle, musikari, sukaldari eta umeei). Bereziki, hasieratik gidioa prestatzen jardun zuen taldeari (Ibon, Itsaso, Alejandro, Nerea eta Rosa); Jose Antoniori, musika-ekipoa jartzeagatik; Oskar eta Itsasori, nerbioak galdu barik tropa hura guztia zuzentzeagatik; eta Marisa eta Juanitori, lan-bretak lagatzeagatik. Eskerrik asko denoi erakutsi zenuten jarrera eta pazientziagatik.

EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA

NAZIO ERAKUNDEAK ERAIKITZEKO ESKUBIDEA DUGU

Apirilaren 29an 7 urte bete dira **Udalbiltza**ren aurkako erasoak egin zutenetik. Auziaren epaiketaren hasiera-data zehatzik ez badugu ere, laster izango dela uste dugu, izan ere Auzitegiak abenduan hasi nahi zuela iragarri baitzuen.

Espainiako Auzitegi Nazionalak Udalbiltzako 22 ordezkarik eta langileren aurka abiatzeko asmoa duen epaiketa politikoa dela eta, udal hautetsi eta hautetsi ohien salaketa adieraztera gatoz eta, aldi berean,

Euskal Herrian nazio-erakundeak eraikitzeke eskubidea aldarrikatzera, bide batez auziperatuoi gure elkartasuna modu praktikoan ere adieraziko diegularik. Izan ere, 1999tik honako ibilbide labur, gorabeheratsu baina emankorrean, ehunka izan gara gure udal jarduerarekin batera Euskal Herriko lehen instituzio nazionalaren, Udalbiltzaren, lanarekin bat egin dugunok.

Lan instituzional hori, izaera publiko eta demokratikoa duena, epaitu eta zigortu nahi dute, inolako funts juridikorik gabe. Eta udal hautetsi zein hautetsi ohi garen neurrian, ezin dugu hori beste barik onartu. Bai, ordea, salatu.

...eta kitto! aldirikako lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu Euskal Herria aintzat hartzen duten ideologia eta lurralde guztietako udal hautetsi eta hautetsi ohiei dei egiteko, euren atxikimendua eta babesa eman dezaten. Euskal Herriak, munduko beste edozein herri duen legez, bere nazio erakundeak eraikitzeke eskubide demokratikoa duelako.

18/98, Gara, Egunkaria, **Udalbiltza**... bidegabeberia hauei erantzun eta ezker abertzaleko hainbat hautetsik pairatzen dugun apartheid egoerari aurre egin behar diogula uste baduzu, gonbidatuta zaude Eibarren, apirilaren 29an, ostegunean, arratsaldeko 7'30etan Udaletxearen aurrean egingo dugun kontzentrazioan parte hartzera.

IRENE ZARRAUA / ALBERTO GARRO

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Prensaurrekoa eman, oharra banatu eta e-mailez bidali ere, bertaritutako prentsa agentziako erreportari batek akatsa egitea nahikoa da inguruko egunkari handi guztietako edizio digitalek agentziak argitaratutako albiste okerra ekartzeko; prentsaurrekoan egondako komunikabideek ere bai. Azalpenak eskatzerakoan, noski, guk agentziatik etorri bezala argitaratu dugureta", denak berdin. Hau da, informazio iturri zuzenarean izanda ere, azkenean agentziako informazioa argitaratzen dute hedabide handiek, zuzenean ontzat emanda, gutxieneko egiaztapena ere egin gabe"

(Joxe Rojas, komunikazioan aditua)

"Pio Aita bilatzen badugu Interneten milioi eta erdi tokitan aurkituko dugu; Jesusen bila hasiz gero, hiru milioi eta erdi aurkituko ditugu; eta porno ipinita, Jesusen marka ehun aldiz gaintutako du. Txinako gazteek askatasun pixka bat aurkitu dezakete Internet-en, baina beste mezu askok munduko gazte asko nahastuko ditu. Lehen erdi-mailako politikoa batentzat sexua atsedean unea besterik ez zen: Austerlitzeko bataila irabazi eta Castiglione kondesarekin oheratzen zen. Craingo politikoez ez dute atsedean moduan hartzen, baizik eta lantoki bezala, eta edozein emagaldurekin konformatzen dira"

(Umberto Eco, komunikazioan aditua)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibariko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldirikaria

autuan

ARRAINDIKALEKOEN BAZKARIA

Maiatzaren 8an egingo dute bazkaria gaur egun desagertuta dagoen Arraindikale kalean bizi izan zirenak, urteroko hitzorduari hutsik egin barik. Bazkaria aipatutako egunean, 13.30etan hasiko da, Chalcha jatetxean.

NAGUSIEN DANBORRADA

San Juan jaietan irtengo diren danborrada bietarako entseguak hasita daude. Umeek orain aste batzuk hasi zituzten entseguak eta eguazteneko elkartzen dira, 19.00etatik aurrera praktikatzen joateko. Helduen entseguak, berriz, aste honetan abiatu dira eta umeena amaitzean, 20.00etan hasten dira. Kasu bietan, Bittor Sarasketa kaleko 7. zenbakian Udalak duen lokalean elkartzen dira.


Nagusien Hamabostaldia martxa betean

AURREKO BARIKAKUAN AURKEZTU ZUTEN PORTALEAN PERTSONA NAGUSIEN XVII. HAMABOSTALDIA. "Eibar, pertsona nagusien lagun izan nahi duen herria" izenburuari jarraituta. Astelehenean ekin zioten aurten programazioari, Azitainera egindako ibilaldiarekin. Egunotan hainbat jarduerarekin aurrera egin ondoren, ekitaldiek maiatzaren 7ra arte izango dute jarraipena.

Astelehenean toka, petanka eta igel-toka txapelketa jokatu da, Ipuruako bolatokian, goizeko 11.00etan hasita; 5ean, zarzuela emanaldia izango da, 18.00etan Untzagako jubilatuetan; 6an txokolate-jana egingo da, oraingoan Egogain



Gerontologia Zentroan; eta egitarauarekin amaitzeko, maiatzaren 7an sukaldaritza lehiaketa egingo da. Ondoren herri bazkaria eta dantzaldia egingo dira, Legarreko frontoian. Lehiaketa 11.00etan hasiko da eta bazkaria 14.00etan. Izen-ematea Eibarko jubilatuetan egin behar da, maiatzaren 4a arte (5 euro).



Ipar Kutxa-ren bulegoa zabalik

KREDITU-KOOPERATIBA BIZKAITARRAK, GIPUZKON ZABALTZEKO PLANARI JARRAITUTA, Eibarren bulegoa zabaldu du aste honetan bertan, Errebal kaleko 3an. Iaz Donostia, Hernani eta Tolosan bulegoak martxan ipini ondoren, 2010ean Eibarren eta Beasainen bulegoa zabaltea zuten aurreikusita eta martitzenaz geroztik martxan dago egoitza berria, bezeroak hartzeko prest.

Eibarko Herri-Irratiko emisora itxita

GAUR IZAN DA EIBARKO HERRI IRRATIAK ZEZENBIDE KALEKO BERE EGOITZATIK ESKAINITAKO AZKEN EMISIO-EGUNA. Martxoan Onda Vasca-k hartu zuen bere gain Jesusen Konpainiaren irratia eta Eibarko egoitzan zein beste herri batzuetako emisoretan gertatuko aldaketak horren haritik datoz. Erabakia aste honetan bertan eman dute eza-gutzera eta aurrerantzean zein frekuentzian jardungo duten eta programazio berriaren inguruko informazio zehatza datozen egunotan zabalduko dute.

EGOITZA NAGUSIA
 Dibaburrieta 20 - beheko, eskuna

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorio eta Errozketa laberak
- Egaitzen (Signo poligonoan)
- Partikulat, meteo eta seguru elzei zerbitzuak
- Koroak - Etxelak - Urteurrenako ekitaldiak
- Euskal Herri osoko ospitaleetan bertan zoztuz
- Nazio eta Nazioarteko itzuldeak

Mugica Errozketa
 Errozketa laberak

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM



Toribio Etxebarria sariak banatuta

ASTELEHENEAN, COLISEO ANTZOKIAK HARTU ZUEN EKITALDIAN BANATU ZITUZTEN 20. TORIBIO ETXEBARRIA SARIAK. Aurreko asteko alean aurreratu genituen finalistetatik honakoak saritu zituzten: Enpresa Berriak atalean lehenengo saria Nem Solutions donostiarrarentzat izan zen, sari teknologikoa Mendaroko Gorosabel Taldearen Akualur-rentzat eta nazioartekotasunari saria, berriz, Derioko Anbotok jaso zuen. Enpresa-ideiak eta proiektuak saritzeko atalean, lehenengoa Innovate&Transport-ek eraman zuen eta sari teknologikoa, berriz, Tires-Textiles-ek. Ekintzailletza Berri-tzailearen saria Epsilon Euskadirentzat izan zen.



Markel Olano Teknikerren

AURREKO ASTEAN EIBARRERA EGINDAKO BISITAN, MARKEL OLANO GIPUZKOAKO AHALDUN NAGUSIAK ERISONOKO enpresa-parkearen aldeko jarrera azaldu zuen. Bestalde, Alex Bengoa Teknikerreko zuzendari nagusiak etorkizuneko polo teknologikoa aurten bertan martxan ipintzeko asmoaren inguruan baikor agertu zen. 20 bat enpresak polo berrian parte hartzeko asmoa azaldu dutela adierazi zuten bisitan.

Txakurtegiko animalien adopzioak

MANKOMUNITATEAK ANIMALIAK BILTZEKO ESKAINTZEN DUEN ZERBITZUAREN BARRUAN, JABE BARIK TXAKURTEGIAN dauden animaliak jaso eta adoptatzeko aukera ematen diote hala nahi duenari. Txakurtegiaren ohizko martxari jarraituta, epe jakin baten barruan inork erreklamatzeko ez dituen animaliak hil egin beharko lituzteke, baina arduradunek diotenez hori oso gutxitan gertatu izan da, epea amaitu aurretik normalean norbaitek adoptatu egiten dituelako bertan dauden txakurrak. Gainera, orain interneten txakurren argazkiak eta datuak kontsultatzeko moduan ipini dituzte. Informazio gehiago jasotzeko edo animalia bat adoptatzeko, Mankomunitatera deitu daiteke, 943700799 telefono zenbakira.

anzorik anzo



100 aparkaleku Zuloagatarrenen


Aspalditik datorren asmoari helduta, Zuloagatarren kalean lurrazpiko aparkalekua egiteko dauden aukerak aztertzeko ikerketa egingo dela aurreratu dute Udal ordezkariak. Esku artean darabilten ideiar lotuta, San Andres eliza inguruan dauden parke biek hartzen duten tokian eraikiko lirateke aparkalekuak. Parke biek, San Andres elizarekin batera, estilo bereko gunea osatzen dute arkitekturari dagokionez, baina, jabetza publikoa denez, Udalak horietan beharrak egiteko eskumena daukala argitu dute Hirigintza sailetik. Dena dela, proiektuak aurrera egingo balu, behin aparkalekuak amaituta atzera ere parkeak berreskuratzea aurreikusi dute. Asmoa, orain arte behintzat, garajeen inguruan bizi direnentzat izatea da, baina ez dute argitu garajeak salgai ipiniko dituzten ala, beste toki batzuetako adibideari jarraituta, hainbat urterako kontzesioan emateko asmoa duten. Kalkulatu dutenaren arabera, ehun bat automobili aparkatzeko tokia lor liteke. Ekimen horrekin eta antzerako beste batzuekin herrian aparkatzeko dagoen arazoari nolabaiteko konponbidea eman nahi diote. Ildo beretik, Jardinetan antzerako zerbait egiteko aukera aurreikusi dute, Ignazio Zuloaga institutuaren azpian.

eibar kalea

Bista Eder kalea

Gaur egun Bista Eder izenarekin ezagutzen dugun kalea, Eibarko Txikito eta Errekatxu kaleen tartean dagoena, aurretik Vista Alegre zen. Bitxikeria modura, Alfa enpresak 1925ean armak egiteari laga eta josteko makinak egiteari ekin zionean, kale horretan izan zuen lehen tailerra.

Pegora kopurua: 19. Erroldatutakoak: 447.



asteko
2.000
datua

bat lagun dira egunero Eibar eta Ermua artean paseatzen dutenak, Eibarko Hiritarren Parte-Hartze Mahaia kaleratutako datuen arabera. Gipuzkoako Batzar Nagusiak egindako eskaerarekin egin du bat eta era berean Debegeak sustatzen duen errekaren ondotik joango den bidegorria egiteko proiektua bultzatu du. Hor inguruan egin beharreko lanek bariantearen 3. fasearekin doaz lotuta.

EAJren Herri Batzar berria

MIREN SOJO BURUAN IZANGO DUEN HERRI BATZAR BERRIA AUKERATU DU Eibarko EAJ-k. Egitura berriaren arabera Manolo Alonso, Aitor Alberdi, Mixel Balenciaga, Cristina Baz, Iñaki Bernedo, José Manuel Egialde, José Manuel Uranga, Garbiñe Gisasola, Begoña Gorrotxategi, Roberto Larreategi, Laura Martínez, Filipa Milikua eta Iñaki Zuloagak osatuko dute batzarra. Alderdi jeltzalearen berbetan erantzunkizun osoz ekingo dio bere lanari. Era berean, azken urteetan egin duen bitartekotzeak herriaren garapenerako izan duen garrantzia azpimarratu du EAJ-k.

Novia Salcedo Fundazioak Teknimap saritu du

GAZTEEN KONTRATAZIOAREN ALDEKO APUSTU EGITEAGATIK SARIA JASOKO DU TEKNIMAP EIBARKO ENPRESAK, Souleyman Sarr, Ricardo Díaz Hotchliner eta Fagor-ekin batera. Novia Salcedo Fundazioak aurreko astean Bilbon eman zituen ezagutzera, Gazteen Laneratzeko Bikaintasunaren III. Sari Internazionala jasoko dutenen izenak. Federico Mayor Zaragoza buru duen 16 laguneko epaimahaiak aipatutako enpresei saria ematea erabaki du, bakoitzak bere arloan egindakoaren garrantzia azpimarratuz. Otaola Hiribidean egoitza duen Tek-



nimap-ek energia-iturri berritagarri eta ingurugiroari lotutako enpresa txikien arloan saritu nahi izan dute. Aurtengo sariak banatzeko ekitaldia maiatzaren 25ean izango da Bilbo-

ko Arriaga antzokian. Saritutako enpresetako ordezkariak Lander Rekakoetxea EHU-ko Arte Ederretako ikasleak diseinatutako eskultura jasoko dute ekitaldian.

Ricardo Alberdi Aste Soziala


EIBARKO IDAZKARITZA SOZIALAK, JUSTIZIA ETA BAKEAK ETA EIBARKO PARROKIAK ELKARLANEAN, Ricardo Alberdi XVIII. Aste Soziala antolatu dute. Datorren astean hainbat hitzaldi eskainiko dira Portalean, 19.30etan: maiatzaren 4an (martitzena) Javier Gutiérrez Hurtado Valladolideko unibertsitateko ekonomia irakasleak "Gatazka sozialak eta erantzunak krisiari"

izenburuko hitzaldia emango du; eguaztenean Armando Fernández Steinko Madrilgo unibertsitateko soziologia irakasleak "Errentaren kapitalismoa eta bere etorkizuna 2008ko krack-aren ondoren" izenburuko; eta maiatzaren 6an Joakin Arriola EHU-ko ekonomia politikoko irakaslearen txanda izango da, "Kapitalismoa zer den eta zer ez" izenburukoarekin.

Konrado Mugertza Eskola Kontseiluko presidentetzatik kanpo

KONRADO MUGERTZA EIBARTARRAK EZ DU JARRAITUKO EAE-KO ESKOLA KONTSEILUKO PRESIDENTE KARGUAN datorren ikasturtean. Agintaldia amaitu du Mugertzak eta Eusko Jaurlaritzak ez du karguan berretsi. Hala ere, Mugertzak berak ere ez luke jarraituko gobernua- ren konfidantza izan eze-

an. Tontxu Campos sailburu ohiak izendatu zuen karguan Mugertza eta PSE-



EE Jaurlaritzara heltzean Mugertza kargua mantentzea erabaki zuen Isabel Zela sailburu berriak. Lau urteko agintaldia, ordea, apirilean amaitzen du Mugertzak eta Hezkuntza Sailak ez du presidente postuan mantenduko.

JULIA BRIONGOS SENDINO


2010eko apirilaren 20an hil zen,
86 urterekin

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Urriaren 25a jaieguna izango da EAE-n Eusko Legebiltzarrak hala erabagitta. Euskadiko Eguna sortu dabe Gernikako Estatutuaren urtemugia ospatzeko. Ointxe, bestetik, oiñ arte jaieguna izan dan bat kenduko biharko da kalendarixotik.

Zein jaiegun kenduke zenduke Euskadiko Egunaren ordez?



JUANITA IRIONDO
64 urte
etxeakoandria

Ez dakitt, pentsatu egin biharko neuke. Ointxe burura etortzen jataana Santixago eguna da. Hori kenduko neuke, beste barik. Ez dakat arraoi berezirik, baten bati tokatu bihar joko kentzia eta nik hori kenduko neuke nere esku egongi bazan.



URKO IZAGIRRE
39 urte
teknikua

Urriaren 12ko jaixa kenduko neuke, Hispanidadiaren Eguna. Euskaldunen eguna Aberri Eguna ez bada, begittantzen jata espaiñiarrren eguna dan Hispanidadiaren Eguna kenduko biharko leukiela.


JULIAN URIONABARRENETXEA
60 urte
jubilaua

Ni jubilauta nago; berdin desta zein jaiegun barri ipintzen daben eta zein kendu. Begittantzen jata, halanda be, aurretik jai nahikua daguala gehixago ipintzen hasteko.



IRENE BENITO ESPILLA
85 urte
etxeakoandria

Arrazaren eguna dalako hori kenduko neuke, urriaren 12xan ospatzen dan hori, Hispanidade Eguna. Ez jata bape gustatzen, hola, jaiegun baten bat kentzia aukeratzekotan, hori aukeratuko neuke.





PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ARETO MAGUSIAN
etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

- Goi Eskola Politeknikoa
- ARRASATE**
- MAIATZAK 6 osteguna - 17:30
- Enpresagintza Fakultatea
- IRUN** 2. zikloa
- MAIATZAK 6 osteguna - 18:00
- OÑATI**
- MAIATZAK 13 osteguna - 18:00
- Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
- ESKORITATZA**
- MAIATZAK 8 larunbata - 11:00



ITSASO IZAGIRRE,

EHEko kidea

- 30 urte bete ditu EHEk. Nola-koa izan da bidea ordutik?

Euskal Herrian Euskaraz elkar-
karta 1979. urtean aurkeztu
zen "Euskararik gabe, Euskal
Herrikerik ez" lelopean, eta gaur
egun oraindik gure helburu dena
plazaratu genuen: Euskal Herri
euskalduna lortzea. Ordutik, hel-
burua argi edukita ekintza asko
egin ditu EHEk, borroka asko
egin du. 30 urte daramatza Eus-
kal Herria berreuskalduntzeko
bidean urratsak ematen, euskal-
dunon hizkuntza eskubideen
aurkako erasoak salatzen, eus-
kararen normalizazio prozesuan
akuiulu lana egiten, euskaraz bizi-
tzeko hautua hedatzen eta herri-
tarrei ibilbide horretara atxikitze-
ko dinamikak eta espazioak es-
kaintzen.

**- Denboraren joanean helbu-
ruak aldatu edo birmoldatu
dituzue?**

EHE-ren helburua Euskal He-
rri euskalduna lortzea da, gure
hizkuntzan lan egiteko, berba
egiteko, ikasteko, lan egiteko...
eskubidea edukitzea, azken fi-
nean, bizitzeko. Azken urteetan
gure leloak nolabaiteko aldake-
ta izan du. Eskubideak bermat-
zea eskatzen jarraitu behar du-
gu, noski, baina esan nahi du-
guna da euskeraz bizitzea nahi
dugula. Ez gara instituzioekin
bakarrik sartuko, goazen egu-
nerokotasunera. Gizartea eta
kultura zerbait baldin badira,

Eibarko Euskal Herrian Euskarazko (EHE) hiru kideetariko bat da Itsaso Izagirre. Euskalgintzarekin batera hainbat proiektu aurrera darama elkarte honek euskera indartzeko asmoz. 30 urte bete ditu EHEk eta Euskaraz Bizi Eguna ospatuko du domekan Etxarri-Aranatzen.



hizkuntzagatik dira. Kulturaren
oinarrria euskera da, hemengo
kasuan behintzat. Beraz, eus-
kaldunok euskeraz bizi behar
dugu. Hizkuntza eskubideen
borrokatik gizabanakoaren impli-
kaziara jo dugu.

**- Nolako joera dago euskera-
ren erabileran?**

Eibarren egin dira euskeraren
erabileraren gainean ikerketak
eta egoera ez da ona, nahiko
kaxkarra da. Euskeraren ezagu-
tza handia da, gero eta gehia-
gok daki euskeraz egiten, baina
berba egiterako orduan ez da
hazkunderik nabarmentzen.
Hau da, kontzeptu bi horiek ez
dira proportzionalak, jakintza
eta erabilera.

- Zein da zergatia?

Hainbat ikerketa daude eta
bat hezkuntzaren gainekoa da.
Zentzu horretan esan daiteke D
ereduak ez duela euskaldun-

tzen. Ikerketek diote D eredu-
tik irtetzen diren 3 pertsonetatik 1
ez dela euskalduntzen, ez dela
euskalduna, ez dela euskeraz
moldatzen. Horrek frogatzen du
ereduen sistema honek ez due-
la euskalduntzen. Orain, gaine-
ra, hori aldatzeko asmotan dabil
Celaia; A eta B ereduaren zentra-
tuta ingelera, gaztelera eta eus-
kera uztartzea, orduan D eredu
batek bere helburua ez badu
lortu, horrela are gutxiago. Hori
da euskeraren erabileraren
egoera txarraren arrazoiatariko
bat, baina asko daude. Pentsa-
tzen dut bakoitzaren jarrera de-
la arrazoi handi bat baita ere.
Adibidez, gaztelera egiten ba-
digute, guk hizkuntza aldatu be-
har izatea euskeraz jarraitu or-
dez, euskera galtzeko bidean
jartzea da.

**- Zer egin daiteke egoerari au-
rre egiteko?**

Lehenik eta behin hizkuntza
marko bat, non toki guztietan
errespetatu edo bete behar
izango den euskeraren presen-
tzia. Bestalde, gizartearen jarre-
ra eta erantzuna behar dugu.
Mentalizatu behar dugu hain
dela garrantzitsua gure hizkun-
tza, ezin dugula galdu.

**- Nork egin behar du mentali-
zazio lan hori?**

Denok. EHEk, euskera elkarte-
ek, prentsak eta, noski, institu-
zioek.

- Instituzioek laguntzen dute?

Ez dute egin dezaketen beste
egiten. Eibarren, adibidez, ez
dago euskeraren erabileraren
ordenantzarik. Ez dagoenez,
inork ez du legea hausten. Ba-
dago plan bat euskeraren gara-
pena bermatzeko, baina 10 urte
daramate ordenantzek plan ho-
rren barruan. Hala ere, gauza
gehiago egin beharko lirakeke.

**Gora Maiatzaren
Lehena!!!**

**Erasoei
aurre!!!**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



MANIFESTAZIOA
DONOSTIAN
12.00etan,
Alderdi Ederren

**ENPLEGUA
eskubideekin eta
gure pentsioen
BERMEA**

AUTOBUSA
10.30etan,
Ego Gainen

Langileen Nazioarteko Eguna ospatuko da maiatzaren 1ean munduko txoko askotan, baita Eibarren ere. Erreibindikazio-postu batetik, langileek euren eskubideen aldeko borroka, ekimen edo neurriak aldarrikatuko dituzte bihar.

Ezkerreko ukabila altxatuta

Chicagoko martiriak omentzeko izendatu zuen Bigarren Nazionalak maiatzaren 1a Langileen Nazioarteko Egun. Haymarteko matxinadaren ostean hildako langileen oroimenean izendatu zen egun hau, langileen eskubideen defentsaren erakusgarri. Bitxikeria moduan, Amerikako Estatu Batuetan ez da maiatzaren 1a ospatzen, horren ordez Labor Day egiten da irailaren lehen astelehenean (Grover Cleveland presidentek hartu zuen erabakia, AEBn sozialismoaren hazkundera eragotzeko).

Egun honen aurrean sindikatuek deialdia egin dute. Langileen eskubideen alde kalera irtetzea eskatzen dute, bakoitza bere aldarrikapenekin. UGT eta CCOO sindikatuek batera ospatuko dute eguna, ELAK eta LABek, ostera, bakoitzak bere

aldetik. Horrela, aukera ezberdinak eskaintzen dira maiatzaren 1a ospatzeko.

Hainbat ekitaldi

Eibarren hainbat ekintza egingo ditu LABek bihar. Lehenik manifestaldia egingo dute 12.00etan eta honen ostean ekitaldi politikoa. 14.30etan, bestetik, herri-bazkaria egingo dute. LABek Euskal Herri libre eta sozialista aldarrikatzen du. Zentzu horretan, konponbide politikoaren bidean gaudela dio, "baina hau posible bihurtuko bada, Euskal Herrian prozesu demokratikoaren bidez besterik ez da izango". Elkartasunean oinarrituriko eta aberastasuna justuki banatuko duen eredu soziala aldarrikatzen du sindikatuak.

Sindikalismo erreindikatiboa inoiz baino beharrezkoagoa dela dio ELAK Langileen Nazioarteko Egunaren aurrean. Krisi



ekonomikoaren aurrean politikak bere funtzio soziala utzi eta bankaren zerbitzura ipini dela salatzen du sindikatuak, eta planteatu diren erreformak langileen lan-eskubide eta eskubide sozialak erasotzeko erakusle direla.

CCOO eta UGT sindikatuek, iazko moduan, elkarrekin ospatuko dute maiatzaren 1a. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan manifestaldi bana antolatu dute sindikatuek: Bilboko Jesusen Bihotzaren plazan 11.30etan, Gasteizen Andra Mari Zuriaren plazan 12.00etan eta Donostiako Alderdi Ederren 12.00etan. Azken

honetara joan ahal izateko autobusak irtengo dira Ego-Gainen 10.30etan. Sindikatu bi hauek bihar erabiliko duten leloa honakoa da: Eskubidezko enpleguaren eta gure pentsioaren bermearen alde.

Lan Osasunaren Eguna

Apirilaren 28an Lan Osasunaren Eguna ospatu zen eta sindikatuek hainbat mobilizazio antolatu zituzten euskal hiriburuetan eta baita Eibarren ere. UGT-k, adibidez, Euskadiko prebentzio delegatuen batzarra egin zuen gure herrian eta Lan Osasunari buruzko hainbat argazki ipini zituen Untzagan.

12.00etan Untzagatik
EIBARREN
MANIFA
maiatzak
langileen
HERRI
BAZKARIA borroka
 14.30etan aldaketaren indarra
LAB Apuntatu egoitzetan

MODU ERAGINKORREAN MOBILIZATZEN GARA LAN ETA GIZARTE ESKUBIDEAK ERREBINDIKATU, BABESTU ETA HOBETZEKO

MANIFESTAZIOA
DONOSTIAN
Alderdi Ederren, 12.00etan
Autobusak Ego-Gainetik: 10.30etan

CCOO
 euzko langile herriak

maiatzak

Euskal Telebistako lehiaketaren izena aintzat hartuta, pozik dagoz Eibarko Koro Gazteko abeslariak eta zuzendarixa. Aurreko asteburuan, zapatu gabian finalari begira egon zan gure herritarren parte haundi bat, batzuk etxian eta beste mordua, barriz, Untzagan, finala ikusteko apropos ipiniñtako pantaillaren parian, nerbixueri eutsi eziñik. Kiroletako neurketa inportantienetan besteko jarraitzaile (edo gehixago!) batzia lortu dabon koro gaztiaren inguruko kontu guztiak kontau deskuez autu honetako protagonistak.

Lehiaketako lehelengo sari-
xa, 10.000 euroak Astigarragara juanda be, irabaz-
lien animo guztiarekin topau dit-
tugu Eibarko Koro Gazteko ki-
diak eta zuzendarixa. Eta ez ja-
kue, ez, hain pozik egoteko arra-
zoirik falta: epaimahaiko kidiak
sari potolua Astigarragari emon
arren, eibartarrak jaso zittuen
lehiaketako ikusentzuliak emon-
dako boto gehixenak. Horreri es-
ker 2.000 euroko premixua ira-
bazi dabe, baiña, halanda be, di-



Oh happy... KORO GAZTEKO ARTISTAK

ruak baiño askoz be balixo haun-
dixagua dakana ekarri dabe
etxera bueltan: publikuaren erre-
konozimendu eta maittasuna,
batez be Eibarko jarraitzaillena.
Horregaittik ez dira eskerrak
emoten nekatzen: *“Benetan,
bihotzez eskerrak emon nahi
detsaguz animuak emoten eta
gure aktuaziñuak segitzen jar-
dun dabon guztieri, Udalarri, fi-
nala baiño egun batzuk lehe-
nago egin zeskun harreragai-
ttik, ikaragarrixa izan zan eta,
zelan ez, lehiaketak iraun da-
ben bittartian lagundu des-
kuen eta gurekin egon diran
guztieri: abesti bakotxaren in-
terpretaziñuarekin lagundu
deskuen Pedro Luke eta Kar-
mele Etxeberriari, pianuarekin*



*gurekin jardun dabon Yasmin
Saoud-i, jantzixak asmatzen
eta josten artistia izan dan Yo-
landa Alberdiri... gurekin izan
diran guztieri”.*

Oh Happy Day fenomenua?

Izar haundixeri egitten jakuen
harreraren parekua egin zetsen
finala baiño lehen udaletxian eta
jarraitzaile gaztiak (eta ez ho-
rren gaztiak be) koroko partai-
dien izenak ezagutziaz gain, au-
tografuak eta dana siñatzeko
illarak egin zittuen. Eta zapatu
gabian Untzagan bizi izandako
jaigiruaren ondoren, gitxi gera-
tuko dira herrixan Eibarko Koro
Gaztea edo Oh Happy Day en-
tzun eta zeren gaiñian dihar-
duen jakingo ez dabenik. Baiña,
eta badaezpada, zeintzuk dira
horrenbeste jende atzetik izatia
lortu dabon gaztiok?

Eibarko Koro Gaztea izena-
ren atzetik 15 gazte dagoz: An-
doni Arrieta, Ane Lahidalga, Eva
Garcia, Ines Oiartzabal, Irene
Hernando, Itsaso Iregi, Janire

Fernández, Jone Pagei, Julen
Sarrionaindia, Lorena Gonzá-
lez, Andrea González, Maialen
Insausti, Miren Egaña, Miren
Zulaika eta Sergio Morenza.

Korua 2008ko urrixan sortu
zan, Juan Bautista Gisasola Mu-
sika Eskolako irakasliak eginda-
ko deixari erantzun zetsen gaz-
tiek. Elena Martin zuzendari-
xak azaldu deskun moduan,
*“gaztiek osatutako korua sortu
nahi genduan. Izan be, Eibarren
lehendik be baeguazen helduen
abesbatza bi, Sostoa eta Go-
runtz, eta umiak be bazeken eu-
rena. Horregaittik, somatzen
genduan hutsune hori betetzeko
ahalegiñari jarraituta, gaztiek
aldia sortzia pentsau genduan,
aittatu barri dittugun koruetatik
diferentia, bere errepertoriuare-
kin eta guztiarekin”.*

Erdi brometan hasittako abentura

Baiña taldiak lehelengo pau-
suak emon eta, segiduan, euren
ibilbidia goittik behera baldintza-



Eibartik joandako jarraitzaile asko izan zituen ETBko finalak. KARMELE ETXEBERRIA

ELENA MARTÍN, zuzendarixa

“Gogorra izan da, baiña gustora jardun dogu”

- Finalaren inguruko guztiak pasau barri izanda, zelako esperientzia izan da Oh Happy Day lehiaketara juatia?

Oso pozik gagoz, lehiaketan parte hartziarekin batera gauza mordua ikasi ditudugulako eta, gainera, jendiak emon deskuezen animuak, zelan lagundu deskuen darian... ez dot berbarik topatzen daneri gure esker ona azaltzeko.

- Saio bakoxtian abesti diferentia eskindu dituduzue, koreografixa, karakterizaziño eta enparauekin. Zelan preparatzen zeneduzen?

Finala kenduta, beste programa guztiak grabautakuak izan dira, Miramonera juaten giñan astebete lehenago. Eibartik 17.30xak aldera urten eta bueltia goizaldian, 02.00xak aldia egitten genduan. Berez grabaziñuak 22.00ak eta 01.00ak tartian egitten ziran, baiña horez gain dana preparau bihar izaten zan, makillajia, orrazkerak, afaldu be bertan egitten genduan... Gogorra izan da, baiña gustora jardun dogu.

- Kanziñuak zeuek aukeratu dituduzue, ala programako arduradunak proposatzen zittuen?

Bixetatik euki dogu, batzuk geuk aukeratu ditudu-

Martín, Astigarragako zuzendariarekin.



gu eta beste batzuk, oster, eurak. Edozelan be, programak berak proposautako kanziñuekin gustora jardun dogu: “ABC”, “Txanpon baten truke”, “I’ve got a feeling” eta “You’re beautiful” izan dira eurak emondakuak.

- Eta zeuek, zeren arabera aukeratu dituduzue kantak?

Piskat denetarik, estilo gehixenak ikutzen ahalgindu gara, erritmo diferentiekin biharrian jardun nahi genduan, beti be saiua zelakua dan kontuan izanda. Abestixak ezagunak eta aktualak izan dira eta, gehixenetan partiturarik ez nekanez, neure moldaketak egitten jardun dot, baiña neri holan jardutia gustatzen jata, instrumento bat (normalian pianoa) base modura hartu eta moldaketak egitten juaten naiz. Oso pozik geratu naiz, asko ikasi dotelako.



Autografo asko sinatu dituduzte Koroko partaideek. K. EXIBERRIA

tuko eban sorpresia aillegau jakuen: “2009ko apirillian Itsaso

Martínez de leixa jaso genduan, lehiaketarako kastiñera presentatzeko proposamenarekin. Asuntua erdi brometan hartu genduan, geure artian berba egiñ eta probak egittera juatia erabagi genduan, larregi pentsau barik”.

Eta holan, ixa konturau barik, Eibarko Koro Gazteak telebisi-

ñuaren abenturari ekin zetsan, protagonistak nekez ahaztuko daben esperientziari atiak zabaldata.

Klaudio Landak presentatzen daben abesbatza lehiaketa urtarillian abiatu zan bere bigarren ediziñuan, lehelengo ediziñuak izandako harrera onarekin animauta. Parte hartu daben koruak aktuaziño bakoxtaren ostian Iñigo Arbiza, Miren Fernández eta Unai Zabaletak osatutako epaimahaixaren erabagi eta kritikeri aurre egin bihar izan detse, lehelengo egunetik azke-

neraiño. Oh Happy Day lehiaketaren bigarren ediziñuak 9 herritako taldiekin ekin zetsan bidari: Donibane, Donostia, Durango, Irun, Mallabia, Orio, Tolosa eta Astigarragako taldiekin lehiatu dira eibartarrak, kanporaketeri ihes eginda eta hasieratik faboritoen artian egotia lortuta, azken saioraiño aillegau diran arte.

Hurrengo aktuaziñua Coliseoan


“Oso esperientzia politta eta aberasgarrixia” izan dala azpimarratu desku zuzendarixak, publikuak ikusi dituduan aktuaziño artistiko eta erakargarrietaraiño aillegau bittartian biharra gogotik egin dabela esatiarekin batera. Koroko zuzendarixak diñuanez, “holako zeozertan parte hartzeko oso edade aproposian dagoz eta oso aberasgarrixia izan da danondako, euren dako ez eze neretako be bai, asko ikasi dogu. Azken batian, miñutu pare batian, abestitik aparte jarrera, estilismua eta beste hamaika kontu zaindu bihar izan ditudugu, kanziño bakoxtak istorixo oso bat kontatzen dau”.

Eta gaztiak rodajia hartuta dakela ezin geinke ukatu. Hurrengo aktuaziñua herrixan, Coliseoak Haitiren alde hartuko daben jaialdixan eskinduko dabe, maiatzaren 14an. Eta baten baten aurreko asteburuko finala galdu baeban edo atzera be ikusi nahi badau, lasai, bixar atzera be emongo dabelako ETB-1ian. Holako martxia eukitta, zelan ez dira ba pozik egongo? Zorionak!

CARMEN MOLINA ROSES “LA VALENCIANA”

(2010eko apirilaren 27an hil zen, 92 urterekin)

Sendikoen izenean, ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.



TEEN-
AUEA



Domekara arte egongo da ikusgai Ignazio Zuloagako ikasleen arte erakusketa Portalean. Lanen artean Maria Zaret eta Oihanerenak daude. Soraluzeko artista bi hauek 'makina' batzuk direla dio Anjel Guenaga irakasleak. Esperimentatzeko sasoia du bikoteak, baina artearen munduan dute etorkizuna ziur.

MARIA ZARET SANCHA & OIHANE ALBERDI, artistak:

“Betidanik gustatu zaigu MUNDU ARTISTIKOA”

- Batxilergo artistikoko ikasleak zarete, baina zein arlotan aritzen zarete gehienbat?

Oihane: Hainbat ikasgai ditugu, eta horien artean margolaritza, ikus-entzunezkoak eta argazkigintza daude, adibidez, eta horretan gabilta.

- Baina zein da gehien gustatzen zaizuena?

Maria Zaret: Margolaritza.
Oihane: Diseinu grafikoa eta argazkigintza ditut gustokoen.

- Nondik datorkizue arlo artistiko hauekiko zaletasuna?

Maria Zaret: Pentsatzen dut betidanik gustatu izan zaidala margotzea.

Oihane: Nik ere beti izan dut gustoko gauza artistiko hauetan ibiltzea.

- Klasetik kanpo ere ibiltzen zarete zuen jakinmin artistikoa garatzen?

Maria Zaret: Ni, adibidez, etxean ordenagailuan nagoenean beti nabil margotzen, beti daukat zerbait eskura. Lehen margolaritzan ari nintzen Soraluzen, baina laga eginnuen.

Oihane: Argazki kamerarekin

sarritan ibiltzen naiz hara eta hona argazkiak ateratzen.

- Zer saiatzen zarete azaltzen zuen artelanetan?

Maria Zaret: Gauza ezberdinak. Ez daukat ezer berezirik buruan sartuta. Orain arte objektuak margotu ditut batez ere, baina pertsonak margotzeari ekin diot orain. Beste barik, momentuak eskatzen didana egiten dut.

Oihane: Niri, batez ere, erretratuak egitea gustatzen zait.

- Pentsatu duzue zer egin nahi duzuen batxilergoa amaitzen duzueanean?

Oihane: Diseinu grafikoa egingo dudala pentsatzen dut.

Maria Zaret: Barne-diseinua egingo dut nik, etxeen dekorazioaren (eta abarren) gaineko ikasketa.

Oihane: Boloniako planarekin, gainera, ikasketa bi hauek graduakoak bihurtu dira, izan ere, lehen Goi-Mailako ikasketak ziren.

- Non egin daitezke ikasketa horiek?

Oihane: Donostian edo Gasteizko Arte Eskolan egin daitezke.



AUTOEN



**23.
zkoa.**

**...eta kittol
aldizkariaren
gehigarria**

gehigarria

Autoa aldatzeko diru-l

2009. URTEAN ESPAINIAKO GOBERNUAK AUTO EKOIZLEEI LAGUNTZEKO SORTUTAKO DIRU-LAGUNTZAK


uste baino azkarrago amaitu ziren eta urte amaieran arazo bat baino gehiago sortu zen. Hori

delata eta, abendu amaieran ministroen kontseiluak autoen Plan E delakoa luzatzea erabaki zuen.

Espainiako gobernuak bultzatutako diru-laguntza honetan 2.000 euro arteko diru-laguntza aurreikusida, bai 2009an bai 2010ean ere. 500 euro Madrilako Gobernuak bideratutakoak, beste 500

euro Eusko Jaurlaritzak eta 1.000 euro auto-etxeak. Guztira, 100 milioi euro banatuko dira, hau da, 200.000 auto inguru Espainia osoan.

Krisiak auto salmenta kopurua izugarri jaitsi zuen eta behin eta berriro azpimarratu zuten auto ekoizleek diru-laguntzak ezinbestekoak izango zirela, orain urte batzuetan izadako "plan renove" modukoak. Plan E horri esker, azkenengo hilabeteetan auto salmentak gora egin du, eta 100 milioi euro horietako %70 honezkero agortuta dago. Hala ere, plan-ak berak markatzen duenari jarraituta, oraindik ere badago dirurik. Auto ekoizle bakoitzak badaki



MOTOS IRH
IÑAKI DEL REY HERMOSILLA

OTAOLA, 9 - 2. esk.

MULTIMARCA
Salmenta eta Konponketa

Tel/Fax.
943 206 552
motosirh@telefonica.net

ad **AUTO Aurrera KONPONKETAK**

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/ g 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono eta Faxa: 943 20 80 65

ZURICH
Lejardi S.L Aseguru Agentzia
Tel 943201149 Plaza Barria 8 Eibar

DESGUACEDEBA

Itxaspe auzoa, 35 - 2. sol. (peaje ondoan)
PK 86 - 20820 DEBA - ITZIAR
Tel. 943 199 492 / 943 199 210
Mobila. 627 373 999
desguacedeba@desguacedeba.com

DD
Ibilgailuen BAJAK eta ALDAGAIK

laguntzak oraindik ere



tainek erosteko aukera du-
te; auto zaharrak 10 urte-
tik gora izan beharko ditu
eta erosteko den kotxeak as-
koz jota 30.000 euroko
balioa izan dezake, BEZ-a
barne.

Informazio osotuagoa
auto ekoizleetan eta sal-
menta puntuetan inungo
arazorik gabe emango di-
ra eta diru-laguntza auto
salmenta etxeak berak ku-
deatzen du.

zenbat auto saltzeko auke-
ra izango duen datozen hi-
labeteetan, dirua guztiz
agortu aurretik. Auto
ekoizle bakoitzak esan be-
harko dio bezeroari orain-
dik ere diru-laguntza hori
jasotzeko aukerarik duen
edo ez. Komunikabideetan
hainbat adituk esandakoa-

ren arabera, uztaileko
guztiz agortuta izan dai-
tezke aukera guztiak.

Gainera, 2000 eurora
arteko diru-laguntza hori
jasotzeko, erosleak hain-
bat betebeharrak izango ditu.
Autoa pertsona fisikoek,
autonomoek, mikroenpre-
sa eta enpresa txiki eta er-

Barrena, 40 Tf/Fax: 943 70 06 47 Mobila: 689 80 91
64

a.leonardogutierrez@euskalnet.net

AUTOMATISMOS LEONARDO

AGIRRE ELEKTRIZITATEA

Errebal, 14 - behea

Garajeko eskuzko aginteen %99aren grabaketa

ruibal

alquiler de vehículos

ZAMARAKO ETA BIDAIARIENDAKO
(6tik 9 plazaraino) FURGONETAK


HARTZEKO ETA LAGATZEKO
ZERBITZUA

GURE FURGONETAK
EROSTEKO AUKERA



943 17 62 60

www.ruibalalquilerdevehiculos.com



- Nexa Autocolor
- Herberts industrial
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

GASOLEOEN BANAKETA

Otaola etorbidea, 13 -Bis

Tfnoa. 943 20 73 74 Faxa. 943 20 70 91



R.A.C.V.N.-ren
ordezkaritza

J.A. LASKURAIN

ASEGURU ARTEKARIA S.L.

D.G.S. 1.408 - J



ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

Urtzaile 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13 / 943 12 05 30
Faxa. 943 70 28 87 EIBAR

Auto zaharra kentzeko, zer?

**KOTXE BERRIA
EROSTEAREKIN
BATERA, ZAHARRA
AUTO SALMENTA
PUNTUAN
LAGATZEKO
OHITURA HANDIA
DAGO, ARE
GEHIAGO "PLAN
PREVER" EDO
"EPLANA"
DELA-ETA**

Baina, hainbat arrazoi medio, batek baino gehiagok berak kendu du autoa eta ez daki zer egin behar den. Gaur egun, bidea erraza da: doakoa eta, gainera, ekologikoa ere bada.

Gure autoak egin du egin beharreko guztia, errepidetik kendu nahi dugu, baina kontuan izan behar ditugu betebeharrak, bereziki autoak hondakin kutsatzaileak sortzen dituela. Guzti hori tratatzeko, gune baimenduak ditu Trafiko Zuzendaritzak, Itziarren dagoen "Desguaces Deba", adibidez.

Tratatzeko Gune Baimen-



Autoak hamabost urte baino gehiago izanez gero, ez du inongo kostorik izango; doakoa izango da. Inguruan halako gunerik dugun jakiteko, trafico.es webgunean begiratu daiteke.

duetara joatea da garrantzitsuena eta han ingurumen legeei jarraituko diote. Guri dagokigunez, autoak hamabost urte baino gehiago izanez gero, ez du inongo kostorik izango; doakoa izango da. Horrelako gunerik inguruan dugun jakiteko, trafico.es webgunean begiratzeko aukera dugu.

Nortasun Agiria aurkeztu beharko dugu, zirkulazio baimena eta libilgailuaren Azterketa Teknikoaren Txar-

tela. Udal zirkulazio zergaren ordainketa ziurtagiria ere aurkeztu beharko dugu, beti ere autoak hamabost urte baino gutxiago baditu. Inprimaki bat beteko dugu gunean bertan, autoa gure izenean gehiago ez agertzeko. Hori egin eta gero, guneak berak izango du autoaren ardura osoa. Eta horrela esango diogu agur azken urteetan leku batetik bestera eraman gaituen autoari.

**EIBARKO
AUTO-ESKOLA
AITZINDARIA**



Telefona.
943-201500

Julian Etxeberria, 7 - behea

TEORIKA: ASTELEHENETIK LARUNBATERA

EPEETARA finantzaturako **KARNETA**
zuk aukeratutakoaren arabera
Intereserik gabe

IKASTARO TRINKOAK

Goizez, 09.0-13.00 Arratsaldez, 16.00-20.00

ARRATE GIBARIEN ESKOLA

ARRATE

auto-eskola





Escudería Eibarrek pilotoak aurkeztu zituen Arraten

TALDE INDARTSUA OSATU DU ESCUDERIA EIBARREK DENBORALDIARI EKITEKO eta piloto guztien aurkezpena egin zuen Arraten. Han izan ziren Iñaki Del Rey (enduro eta cros-country motorra), Julia Agirre (karting-a), Omer Artaloitia, Cristina Liébana, Jon Zuazua, German Agreda, Carlos Martín, Joseba Egaña, Urzi Beristain, Arkaitz Olalde, Joseba García, Jesus De la

Fuente, Jorge Rodríguez, Alex Velasco, Aitor Rocha, Kepa Karmona, Maier Outeiriño eta Enrique Bernedo. Ez ziren izan aurkezpenean Iban Tarsicio, Iñigo Peña, Aitor Arrieta eta Oihane Arrieta, hauek ere Escudería Eibarko kideak.

Karting modalitatean diharduen Julia Agirre gazteak, 130 pilotoen artean, denborarik onena lortu zuen Gipuzkoako Foru Kopako 4. edizioan.

Manix-en debuta Barakaldon

JAVIER MANDIOLAK VIADERO-REN TOKIA BETEKO DU hemendik aurrera, Liga amaitzeko jardunaldi bi besterik falta ez direnean. Partidu horietan lortu beharko du Eibar KEk promozioa jokatzeko txartela, gaur egun oraindik poltsikoratu ez duena. Taldearen martxa kaskarrak eta zaleen txistuak behartu du zuzendaritza erabakia hartzera eta ekarri du Manix berriro azken igogera lortu zuen taldearen aulkira bueltatzea. Debuta domekan izango da, 18.00etan, Lasasarren; hurrengo jardunaldian, berriz, Eibarrek Bilbao Athletic hartuko du Ipuruan



Saskibaloia jardunaldiak ekainera arte

HERRIKO SASKIBALOI TALDE BIAK KIROL HORI BULTZATZEKO ASMOZ, zapatu honetatik aurrera eta Sanjuanak arte hainbat jardunaldi egingo dituzte. Ipurua kiroldegian egingo dira bilera horiek

zapatuero, 10.00etatik eguerdira arte eta 10etik 15 urtera bitarteko neska-mutil guztiei zabalduko zaie aukera. Jardunaldi horietan talde kirol horretako funtsezko oinarriak erakutsiko dizkiete bertaratutakoei.


Batxilergoa: A eta D ereduetan

UNI EIBAR



Otaola Hiribidea, 29
20600 EIBAR
Tel. 943 20 84 44
Faxa. 943 20 31 96
uni@iesunibhi.com
iesunibhi.com

UNI ERMUA



Ongarai Auzoa
48260 ERMUA
Tel. 943 17 62 57
Faxa. 943 17 64 50
uni@iesunibhi.com
iesunibhi.com

Batxilergorako AURREMATRIKULA

MAIATZAREN 3tik 12ra

GURE ESKAINTZA

BATXILERGOA

Giza eta Gizarte Zientziak
Zientzia eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Merkataritza
Administrazio Kudeaketa
Mikroinformatika-Sistemak eta Sareak

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Nazioarteko Merkataritza
Administrazio eta Finantzak
Informatika-Aplikazioen Garapena
Gorputz eta Kirol-ekintzen Animazioa
Informatika Sistemen Administrazioa

**Lana eta Etengabeko Prestakuntza*

**Erasmus eta Leonardo Programak*

GOI MAILAKO ZIKLOETARAKO

Sarbide Frogaren Prestakuntza

Arquitectura handia Eibar Rugby Taldearen hurrengo aurkaria

ETZI, EGUERDIKO 12.00-ETAN, MADRILEN JOKATU BEHARREKO NEURKETA-REKIN hasiko da Hierros Ane-txeko ordezkariarentzat mailari eusteko azken kanporaketaren harat-honakoa; partidu hori Puerta de Hierro zelaian joka-



tuko da. Malaga indartsuarekin lehia parekatua izan dute Isasaren mutilek eta, partidu bietan nagusitu arren, ondo borrokatutako garaipenak izan dira biak. Unben jokatutako partiduan atzetik ere joan ziren eibartarrak behin baino gehiagotan; baina, dena emanda, tartean Igor Martínen drop biei esker, azkenean irabaztea lortu zuten bildutako zale mordoa-aren aurrean. Bertan egindako zozketako zenbaki sarituak honakoak dira: 2.424 (arkumea), 3.205 (lagun birendako afaria Kantabrian) eta 3.443 (sarrera bi Heineken Cup rugby torneo-rako). Zorionak irabazleei!

Markel Alberdi igerilaria Ohorezko mailakoen Espainiako txapelketan

EIBARKO IGERILARIAK MALAGAKO OPEN-EAN HARTU DU PARTE AZKEN EGUNOTAN eta marka berriak egitea lortu du; horrela, 50 metro libretan, 23 segundo eta 90 ehunekoekin, 14. postuan sailkatu zen, lorpen handia txapelketa open absolutoa zela ikusita (bere aurretik sailkatu ziren lau poloniar eta Trinidad eta Tobagoko bat). Asteburuan Irunen izango du erronka Varduliarekin lehiatzen duen eibartarrak, Ordizian gabonetan jokatzeko den nazioarte mailako trofeoan izaten den baino parte-hartze maila handiagoarekin.



Ferreiro (3.a ezkerretik hasita), Sestaako torneoan saritutako beste bost jokalarirekin.

Ferreirok Euskal Herriko onenen parean dihardu squash-een


SESTAOKO BENEDIKTA TALDEAREN INSTALAZIOETAN JOKATUTAKO SQUASH EUSKAL LIGA BEREGANATU ZUEN ALBERTO FERREIRO Deporrekordez kariak finalean Aitor Yanguas sestaoarrari 3-2 irabazita. EAEko, Nafarroa eta Kantabriako 42 ordezkari izan ziren lehian, barixakutik domekara arte irau zuen txapelketan. Finalistek nagusitasuna erakutsi zuten finalera heldu arte eta hor ikaragarritzko parekotasuna, 5. jokoak eibartarraren alde egin arte (11-8).

Cuevas 9.a Madrilgo maratoian

MIGUEL ANGEL GAMONALEK IRABAZITAKO PROBAN, GOIERRI GARAIKO Eibarko atleta 5.a izan zen estatuko ordezkarien artean, ordu bi eta 20 minutuko denborarekin; egindako beroak eragina izan zuen proban. Taldeka maila handiko lorpena eskuratu

zuen Goierri Garaiak, bigarren sailkatu baitzen, Albaceteren atzetik. Bestalde, marka horrekin Asier Cuevasek ezingo du Bartzelonan jokatuko den Europako txapelketan parte hartu. Madrilgo proban Ana Casares nafarrak irabazi zuen emakumezkoetan.

ATXUTXIAMAIIKA UDALEKUEGAN LH 3 - 4 - 5 - 6koentzat



NON: Ebxe Txiki (Zarautz)
NOIZ: uztailak 1-10
PREZIOA: 220 euro
EZAUGARRIAK: hondartza, parkea... surf ikastaroa, Getariara irteera, bertso afaria...
PLAZA KOPURUA: 30.

NON: Irañeta (Nafarroa)
NOIZ: uztailak 26-abuztuak 4
PREZIOA: 220 euro
EZAUGARRIAK: igerilekuak, frontoia...
EKINTZAK: bertso-afariak, bizikleta txangoak, soka-zirkuitua...
PLAZA KOPURUA: 35.



Izen-ematea **MARITZAREN 7ra** arte izango da Elgoibarko Ibaran. Plazak bete arteko ordena erespilatuko da.



Basque Country Government



Basque Country Government

Basque Country Government



Basque Country Government

Basque Country Government



Basque Country Government



Basque Country Government

Arrate-Octavio erabakigarria martitzenean, 20.30etan

ABONATU KARNET BAKOITZEKO SARRERA BI OPARITZEKO ERABAKIA HARTU DU ARRATEREN ZUZENDARITZAK martitzenean, 20.30etatik aurrera, Ipuruan Pilotes Posada Octavioren aurka jokatu beharreko partidurako. Denboraldia amaitzeko hiru jardunaldiren faltan, partidu horrek zirt edo zart egiteko balioko dio Eibarko taldeari, jaitsiera postuan dagoen Vigokoari lau puntu kentzen dizkio-eta; porrot batek gauzak asko zailduko lizkioke Julian Ruizen taldeari. Sarrerak martitzenera arte, partidu egunera arte, jaso ahal izango dira klubaren bulegoetan (J. Etxeberria, 3), egun horretako 18.00ak arte. Bestalde, martitzenean Bartzelonaren aurka jokaturako partiduan lehenengo taldearekin debutatu zuen Arrateren bigarren taldean (1. Nazional mailakoan) jokatzen duen Tomas Szabo hungariarrak, gol batekin.



Yeray Lamariano Octavioko atezain eibartarra talde bereko presidenterekin fitxaketa egunean.

JoserAuto foball zaletuen Liga irabazle

JARDUNALDI BAKARRAREN FALTAN (TALDE BAZTUEN KASUAN, ELURRARENGATIK ATZERATUTAKO BESTE PARTIDU BATEN FALTAN ERE) JoserAutok irabazi du Eibarko torneoaren Liga txapelketa. Azken jardunaldian txapeliduna 2-0 nagusitu zitzaion KOX-Azkenari eta, Txokok Ekoden-Irazabalekin berdindu zuenez, sailkapeneko lau puntuen aldea gaindiezina da Txokokoentzat. Asteburuan honako partidurak jokatu dira: bihar, Sinesponsor-Tecnografik eta Areto-Clin. Dental (09.00), EzDok Lanús-Txoko (10.30) eta Esmorga-Alkideba




(12.00); etzi, Durango-KOX Azkena (09.00), Somos Sporting-JoserAuto (10.30) eta XOK Caserío-Tankemans (12.00). Elurarrangatik atzeratutako partiduen ostean, Kopa txapelketa abiatuko da.

Magunazelaia xakelaria Gipuzkoako txapelidun alebinetan

IAZ IKER NARBAIZAK TXAPELKETA BEREAN LORTUTAKO 2. POSTUA HOBETU DU ORAINGOAN ANDER MAGUNAZELAIA Mogel-Iturburu ikastolako ordezkariak Grosen jokaturako torneoan. Narbaizak infantil mailan jokatu zuen, 8. postuan amaitzeko, eta Magunazelaiaren mailan lehiatu zuten ere Mikel Elizondo eta Unai Gallastegi eibartarrak. Irabazleak Barakaldon maiatzaren amaieran egingo diren Euskadiko Esko-

larteko Jokoetan parte hartzeko txartela eskuratu zuen.

Zapatuan ere, eta Donostiako Gros taldearen egoitza berean, hasi zen ekainera arte iraungo duen Udaberriko 6. txapelketa. Klub Deportiboko sei ordezkari izango dira bertan. Bestalde, atzotik domekara, Gironako Tossa de Mar-en Espainiako Autonomi selekzioen arteko txapela dago jokoan, Julen Garro tartean dela Euskadiko selekzioarekin.



Ander Magunazelaia, Julen Garrorekina.

DESAFIOA

BIDE-ALDE SOZIEDADEAN

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: MAIATZAK 4

Jon Mikel Mujika/Julen Sololuze/Mikel Arrillaga **VS** Iratxe Ibarra/Joseba Artze/Xabat Gallebeitia

EIBAR-LEAARTIBAI

MAIATZAK 7
BERTSO-AFARIA
21.30etan

SARRERAK
...ETA KITTO!-n
18 € (bazkideak 15)

Dantzaz Konpainiaren eskutik '1.01' egongo da ikusgai gaur Coliseoan 20.30etatik aurrera (8 euro). Filgi Claverie biarritzarraren gidaritzapean Christophe Garcia, Eric Gauthier eta Hilde Koch maila handiko koreografoen dantzak egingo dira Coliseoan.

FILGI CLAVERIE, dantza zuzendaria:

"Dantza garaikidea herritarra izan daiteke"

- Nolako saioa eskainiko duzue Eibarren?

Dantza garaikideko ekitaldi bat da. Dantza garaikideak nahiko irudi txarra dauka eta guk pentsatzen dugu dantza garaikidea herritarra izan daitekeela. Hori proposatzen dugu, programa oso herrikoa, lau koreografiarekin. Batzuk oso umoristikoak dira, beste batzuk oso errezak eurretan sartzeko eta beste bat biziki hunkigarria. Musika eta dantza osoki nahasten dira, eta zubi bat eraikitzen da publikoarekin. Hiru koreografiarekin egin dugu lan: bata frantsesa, Christophe Garcia deitzen dena; bestea Alemanian bizi eta lan egiten duen quebec-tarra, Eric Gauthier; eta hirugarrena donostiarra da, Hilde Koch, oso dantzari famatua izan dena, eta hau da bere lehen koreografia.

- '1.01' izenburua dauka ikuskizunak. Zer iradokitzen du?

'1.01' koreografia baten titulua da eta, berezia dela iruditzen zaigunez, ikuskizun guztiari izen hori ematea pentsatu genuen. Ballet baten izenburua da gehiago edo ideia baten berba bat. Zenbaki bat da, eta zergatik zenbaki hori? Koreografia horretan Eric Gauthierrek erakusten digulako zeintzuk diren dantza klasikoko jauzi edo mugimendu guztiak. Guztiak baino askoz ere gehiago. Izan ere, ez dira 101 mugimendu dantza klasikoan, askoz ere gutxiago dira, baina berak sortu ditu asko eta horrekin nahasketa sortzen du. Kutsu umoretsua du eta, gainera, teknika mailan mutikoak egiten duen koreografia horrek ikaragarritzko teknika du eta behar du.



- Profesionalak izateko bidean dauden dantzariek osatzen dute Dantzaz Konpainia. Erronka da eurentzat ikuskizun hau egitea?

la profesionalak dira, aurrean bizpahiru dantzari konpainia profesionaletan sartuko dira. Horrek esan nahi du zubi hori egin dutela eta hastapenean esandako erronka hori gainditu dutela. Gainera, orain denboraldi amaieran aurkitzen dira eta guztiz menperatzen dute programa, beraz, momentu ona da dantzariek euren osotasunean ikusteko, koreografiak ezagutzen dituztelako eta ez dutelako bakarrik teknika erabiltzen, antzezpen kutsua ere ematen dutelako. Horretan barneratu dute euren ofizioa osoki.

- Ballet Biarritzen ardura laga zenuen Dantza Konpainiaz arduratzeko. Gipuzkoan dantzak bultzakada behar du?

Bai. Hala ere, asko egiten da horren gainean, baina beti egin behar da gehiago. Dantza arte ezezaguna da; beraz, dantzaren alde gehiago egiten badugu, askoz hobeto. Uste dut urrats handiak eman direla jada; adibidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak dantzagunea sortu du Artelekun, sortzaileak bultzatzen ditu... Baina gehiago egin behar da eta bide horretan gaudela uste dut.



Munduko sukaldaritza bertatik bertara

PORTUGAL, MAROKO, TXINA, JAPONIA, ITALIA, FRANTZIA, GREZIA ETA MEXIKOKO ERREZETAK HERRITIK IRTEN BARIK ezagutzeko aukera egongo da maiatzean Portalean emango den sukaldaritza ikastaroan. Kultura-Euskara-Hezkuntza sailak antolatutako ikastaroaren helburua beste herrialde batzuetako errezetak ezagutzera ematea da eta klaseak Unai Magunazelaia Deba Beheko Lanbide Hastapeneko irakasleak emango ditu. Gaian interesa duen 16 urtetik gorako edonork eman dezake izena, maiatzaren 3tik 7ra (biak barne) Pegoran eskera aurkeztuta. Ikastaroaren

prezioa 71 eurokoa da Eibarren erroldatuta daudenentzat eta 118 eurokoa gainontzekoentzat. Ikastaroa Portaleko sukaldetan emango da, zortzi egunetan (maiatzaren 18, 20, 25, 27 eta ekainaren 1, 3, 8 eta 10ean, 19.00etatik 21.00etara. Ikasle bakoitzak amantala eta sukaldeko trapua eraman behar harko ditu.

Ikastaroan gehienez 15 ikasle onartuko dituzte eta, izena eman dutenen kopuruak ezarritako gehienezko ikasleena gaituzteko balu, zozketa bidez aukeratu dituzte onartutako ikasleak (zozketa maiatzaren 13an, 11.00etan egingo da pleno aretoan).



Txori Kantariak Azitainen

EIBARKO TXORI LAGUNAK ELKARTEAREN ESKUTIK BIHAR JOKATUKO DA TXORI KANTARIEN GIPUZKOAKO VII. TXAPELKETA: gure probintziako federatuek hartuko dute parte, ehun batek, karnaba eta txoka arrazako txoriekin. Lehiaketa Azitainen, industrialdeko zelaian (Debegesa parean) izango da (euria egingo balu, Altxubarren frontoira joango dira) eta maiatzaren 9an Leioak hartuko duen finalerako balioko du.

Eibar bertsolari gaztez gainezka

GIPUZKOAKO BERTSO ESKOLEN VI. EGUNA OSPATU ZEN DOMEKAN EIBARREN eta 500 bat bertsolari gazte elkatu ziren herrian. Egunean zehar hainbat ekintza egin ziren: jolasak, kalejira, zezentxoak... bertsolaritza ardatz izanik. Arratsaldean Bertsound System taldearen ikuskizuna egon zen Coliseoan, horrela, bertsolaritza eta hip hop-aren uztarketa saioaz gozatu ahal izan zuten bertara hurbildu zirenek.



Ipurterre lehiaketako irabazleak

EPAIMAHAIK ERABAKI DU ZEINTZUK DIREN ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATZEN DUEN IPURTERRE ipuin lehiaketako

irabazleak. Aurtengo edizioan 1.043 lan aurkeztu dira, 907 Lehen Hezkuntzan (806 D ereduan eta 101 B ereduan) eta 136 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

(denak D ereduan, B ereduko lanik ez delako aurkeztu).

Lehen Hezkuntzako 1-2 mailan June Ibarloza izan da irabazlea D ereduan eta Iker Dávila B ereduan. 3-4 mailan D ereduan Xenia Ferreñok lortu du saria eta B ereduan Ander Arrillagak. Jokin Arrizabalagak lortu du garaipena 5-6 mailako D ereduan eta Lucia Irigoienek B ereduan. DBHko 1-2 mailan Julen Etxanizek irabazi du D ereduan eta Iker Lluviak 3-4 mailan.



LipDub lehiaketako bideoak Youtube-n

LIPDUB LEHIAKETAN PARTE-HARTZEKO BIDEOAK ENTREGATZEKO EPEA AMAITZEAR DAGO; hala ere, antolatzaileek Youtube-ra igo dituzte bideoak. Youtube-n boto gehien lortzen dituzten 3 lanek finalerako txartela lortuko dute

eta ekainaren 18an Coliseoan egingo den ekitaldian erabakiko da zein den talde garailea. Irabazlea izendatzeko puntuen %50a Coliseoan bildutako publikoak emango du eta beste %50a epaimahaiak.

laburrak

HERRI URRATS

Juan Antonio Mogel ikastolako Gurasoen Elkartek eta ...eta kitto! Euskara Elkartek maiaztaren 9an Senperen ospatuko den Herri Urrats jaialdira joateko autobusa antolatu dute. Txartelak 9 eurotan ipini dituzte salgai, euskara elkartearen bulegoan (Urkizu, 11 solairuartera). Autobusa 09.30etan irtetea dago aurreikusita eta buelta, berri, 19.30ak aldera izango da.

MUGALDEKOAK

Udal Euskaltegiak 25 urte betetzen dituela eta, "Mugaldekoak" euskerazko filma estreinatuko dute astelehenean, 20.30etan Coliseoan. Gogoan izan sarrera doan izango dela, baina gonbidapena aurkeztu beharko dela. Gonbidapenak Coliseoan bertan, aurretik eskainiko diren ikuskizunetarako sarrerak erostean eska daitezke edo, bestela, Udal Liburutegian, libururen bat maileguan hartzean.

herri urrats
2010 senperen
maiaztaren 9an

irteera 09.30etan Ego-Gainetik

buelta 19.30etan

AUTOBUS zerbitzua

9€

J.A. Mogel Ikastolako Guraso Elkartea / ...eta kitto! Euskara Elkartea

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza
BERRIA:	15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
Foto-depilazio Unitatea	



Haitiren aldeko jaialdirako sarrerak

EIBARKO PARROKIA ARTEKO MISIO TALDEAK ANTOLATUTA, COLISEOAK HAITIREN ALDEKO JAIALDIA HARTUKO DU maiatzaren 14an, 20.30etan. Jaialdian, besteak beste, honako taldeek hartuko dute parte: Eibarko Balletak, Musika Eskolako Maria-txiak, Goruntz abesbatzak, Eibarko Koro Gazteak, Musika Eskolako soka, gitarra eta bibolinak eta Eibarko Dantza Garaikidea taldeak. Sarrerak 12 euro balio du eta Coliseoan bertan eros daitezke, ikuskizunen bat dagoen egunetan, antzokiko sarreran ipintzen duten mahaian. Sarreraren salmentarekin batzea lortzen den dirua Karitateko Mesedeetako mojej emango diete,

Eskolarteko XXVI. Antzerki Erakusketa

DEBABARRENEKO IKASTE-TXEETAKO ANTZERKI TALDEEK ETA TALDE PROFESIONALEN ANTZEZLANEK herria hartuko dute maiatzaren 18tik ekainaren 3ra arte. Debarreneko Eskolarteko XXVI. Antzerki Erakusketa abiatuko martxan hilaren 18an eta sei antzezlan jasoko ditu Eibarrek, oihala itxi arte; izan ere, eskualdeko herri guztietan eskainiko dira antzezlanak.

Hezkuntza esparruan 'Baba zango-horiak' egngo da maiatzaren 18an, 'Txistulari magikoa' 27an, 'Violeta Coletas contra las salchichas ¡Glup!'



28an, 'Einstein' ekainaren 1ean eta 'El niño colchon' 3an. Coliseoan, berriz, 'Las Alba' eskainiko da 19an.

'Argazkilaritza maiatzean' abian

KLUB DEPORTIBOAK ANTO-LATZEN DUEN 'ARGAZKILARITZA MAIATZEAN' BIHAR BERTAN HASIKO DA Deporrean XXIX. Argizaiola saria ardatz duen erakusketa batekin (hilaren amaierara arte egongo da ikusgai). Maiatzaren 7tik 30era, bestetik, 'Fondos fotográficos' izeneko erakusketa egongo da ikusgai Portalean. Maila indibidualean, Virginia Arakistain eta Jordi Planak Portalean aurkeztuko dituzte euren lanak; eta Juan Miguel Alba Molinak, berriz, Topalekuan. Eibarko hainbat denda eta tabernetan, bestalde, Deporreko argazkilaritza saileko argazkilarien lanak eskainiko dituzte.

Tailerrak eta rallya

Programaren barruan debaldeko tailer bi daude sartuta. Batek, 'Erretratua estudioan' izeneko maiatzaren 15ean egingo



da Portalean. Eta bestetik, Untzagan Argazkilaritza estudioa kalean. 'Galeriako erretratuak hiriaren bihotzean' izeneko maiatzaren 22an. Haue-tan parte hartzeko argazkilaritza@gmail.com helbidera mezua bidali behar da. Maiatzaren 23rako argazkilaritza rallya antolatu da, eta izen-ematea egun berean egingo da 08.30etatik 09.30etara Deporrean.

Santa Kurutzeko jaiak

ASTELEHENA, MAIATZAK 3, SANTA KURUTZ EGUNA IZANDA, URTEROKO MODUAN GOROSTA ETA MANDIOLA AUZOETAN bizi direnek bertako jaiak ospatuko dituzte. Astelehenean bertan hasiko dira ospakizunak, 18.30etan, kanpai-errepika eta suzirikin. Jarraian, 19.00etan Santa Kurutzeko ermitan meza egingo da, auzo bietan hildakoen alde. Dena dela, jai egitarauko ekitaldi gehienak hurrengo asteburuan pilatu dituzte, maiatzaren 8an eta



9an. Herri kirolek, haurrentzako jolasak, bertso-lariak, erromeriak eta beste hainbatek osatutako programazioaren barruan, zapatarako bazkaria antolatu dute lxuan jatetxean. Txartelak honezkero bertan erosteko moduan daude.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELOK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 fax: 943 202564




**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**


Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, IKER Merizalde Buenaire, atzo sei urte bete zenduazelako. Amatxo Rita, aitaxo Romel eta famelixaren partez.



Zorionak, gure MARKEL, hareñegun urte bi bete zenduazten-eta. Muxu haundi bat zure famelixaren partez.



Zorionak, HARITZ Bisquert, gaur bost urte egiten dozuz-eta. Aitaxoren partez.




Zorionak, SIMONE, domekan urtia beteko dozu-eta. Martin eta famelixaren partez.



Zorionak, MANUEL eta TOMASA, gaur urrezko ezteiak betetzen dozuez-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, XABIER, maiatzaren 2xan, bederatzia urte betetziaz gain, jaunartzia egingo dozulako. Famelixaren partez, batez be aitta, ama, Ander eta Unairen partez.



Zorionak, MAITANE Fariñas Argoitia, 28xan hamabi urte bete zenduazelako. Famelixa guztiaren partez.

JAIOTAKOAK

- Egoitz Sánchez Isasti. 2010-IV-11.
- Erika Cuesta Jussic. 2010-IV-11.


HILDAKOAK

- Iñaki Lauzirika Elgezabal. 77 urte. 2010-IV-22.
- Fernando Lasa Fuentes. 66 urte. 2010-IV-22.
- Josefina Fernández González. 82 urte. 2010-IV-24.
- Javier Ramírez Olabe. 73 urte. 2010-IV-26.
- Jose Luis Maiztegi Etxeberria. 67 urte. 2010-IV-26.
- Juan Gisasola Arriaga. 89 urte. 2010-IV-26.
- Carmen Molina Roses. 92 urte. 2010-IV-27.

zinea Coliseoan

"Furia de titanes"

Zuzendaria: Louis Leterrier
Aktoreak: Sam Worthington, Liam Neeson, Ralph Fiennes, Gemma Arterton...



Jainko moduan jαιο baina gizaki moduan hazitako Perseok ezin du bere familia Hades azpimunduko jainkoarengandik libratu. Beste gudari batzuekin, tartean Drako soldadua, deabru eta basapiztien aurka egin beharko du etorkizunaren bila.

"El concierto"


Zuzendaria: R. Mihaileanu
Aktoreak: Alexei Guskov, Mélanie Laurent, Dimitri Nazarov, Miou-Miou...



Brezhnev-en sasoiaren, Andrei Filipov Sobiet Batasuneko orkestra zuzendari onena zen, Bolshoi zuzenduz. Handik 30 urtera toki berean jardungo du... garbitzaile moduan. Orkestra Parisera gonbidatzen duen faxa aurkitu eta musikoen tokia hartzea otuko zaio.

"Iron Man 2"

Zuzendaria: Jon Favreau
Aktoreak: Robert Downey, Samuel L. Jackson, Scarlett Johansson, Mickey Rourke...



Mundu guztiak daki milioi asko dituen Tony Stark dela Iron Man super-heroia. Gobernuak, prentsak eta iritzi publikoak bat egingo dute bere teknologia ejerzitoarekin konpartitu dezan; bera beldur da informazio hori edozeinen eskuetan jausi daitekeelako.

"Sin nombre"

Zuzendaria: C.J. Fukunaga
Aktoreak: Paulina Gaitán, Edgar Flores, Kristyan Ferrer, Diana García...



Sayra Hondurasko nerabeak etorkizun hobearekin egiten du amets. Casper Mexikoko nerabeak nahiko etorkizun iluna du; Martha bere neska-lagunak Lil' Mago Mara-en buruzagia ezagutuko du eta Casper-engandik aldenduko da, derrigorrez.

30ean, 20.30etan; 1ean, 19.45 eta 22.30etan; 2an, 20.00etan; 3an, 20.30etan.

6an, 17.00 eta 21.00etan.

Ego-Ibar

horoskopoa

ARIES

Faltan botako dituzu orain dela aste bi bizitako garai ederrak, baina ez zara triste egongo, ezta gutxiago ere. Ondo pasatzen jakingo duzu.

TAURUS

Hainbat ekimen aurrera ateratzeko ardura izango duzu eta nahiko lanpetuta ibiliko zara. Benetan lan egitea zer den jakingo duzu.

GEMINI

Jatorragoa zela pentsatzen zenuen, baina konturatuko zara pertsonak benetan ezagutu behar direla euren gainean zeozer esateko. Argi ibili!

CANCER

Idea bikaina bururatuko zaizu eta gauzatzeari ekingo diozu. Hori bai, beste pertsona bati laguntza eskatu beharko diozu aurrenik.

LEO

Alboan duzun pertsona maitearekin momentu zoragarriak pasako dituzu asteburuan. Inoiz baino konfidantza gehiago edukiko duzue elkarrekin.

VIRGO

Gauza bat okertzen denean, jarraian dena okertzen da. Saia zaitez arazoak konpontzen, baina gainera datorkizunarekin pazientzia izan.

LIBRA

Zurekin nolako aktorea galdu duen Hollywoodek. Beti gehiegikerietan, lagunek badakite nolakoa zaren eta ez dira jada harritzen.

SCORPIUS

Oso ondo bizi zara eta ez duzu inongo kezarik, baina datorren astean nahiko triste ibiliko zara. Zergatik? Deskubritu egin beharko.

SAGITTARIUS

Gezurretan ibiltzeak arrisku handiak dauzka eta, horrela ibiltzeagatik, pertsona batzuren konfidantza galduko duzu. Aldatu lehenbailehen.

CAPRICORNIUS

Udako oporrak buruan sartuta dituzu eta planak egiten hasi zara. Aurten zerbait berezia egin nahi izango duzu, baina zure aurrekontuarekin...

AQUARIUS

Jarrera ezkor horrekin ez zara oso urrutu joango. Hala ere, animoa aldatuko dizun zerbait gertatuko zaizu eta poliki gora egingo duzu.

PISCIS

Istorio bitxia gertatuko zaizu eguaztenean. Hasieran ez duzu sinistuko, gero urduritu egingo zara eta barrez amaituko duzu.

Barixakua 30

DANTZA 20.30.- "1.01", Dantzaz Konpainiaren eskutik. Coliseoan.

Zapatua 1

TXORI KANTARIAK 09.00.- Txori Kantarien Gipuzkoako VII. Txapelketa. Azitainen (industrialdean).

SINDIKATUEN DEIALDIAK 10.30.- UGT eta CC.OO. sindikatuen Donostiako manifestazioa joateko autobusa. Ego Gainen.
12.00.- LAB-ek deitutako manifestazioa, Untzagatik hasita eta ekitaldi politikoa.
14.30.- Herri bazkaria.

Domeka 2

EUSKARAZ BIZI EGUNA 09.15.- EHE-ek antolatutako Euskaraz Bizi Eguna, Etxarri-Aranatzen. Autobusa Ego-Gainetik.



Astelehena 3

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA 11.00.- Toka, petanka eta igel-toka txapelketa. Ipuruako bolatokian.
17.00.- Mahai jokoen txapelketa. Urkiko jubilatutuetxean.

IKASTEN 16.00.- Sendabelarren foroa: Itsas mihilua. Portalean.

SANTA KURUTZ EGUNA 18.30.- Kanpaiak eta suziariak.
19.00.- Meza, Santa Kurutzeko ermitan, Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde. Ondoren, hamaiketakoa.

ZINE ESTREINALDIA 20.30 eta 21.00.- "Mugaldekoak" filmaren estreinaldia. Sarrera gonbidapenarekin. Coliseoan.

Martitzena 4

IKASTEN 10.00.- "¿Por dónde camina la literatura contemporánea? Un viaje a través del relato breve", José Domingoren eskutik. EPAn (Isasi, 39).

GURASOAK MARTXAN 18.30.- "La autoridad familiar" hitzaldia. Aldatzen.

Eguaztena 5

IKASTEN 10.00.- "Un mundo desincronizado", Daniel Innerarity-ren eskutik (librea). Armeria Eskolan.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA 18.00.- Zarzuela emanaldia. Untzagako jubilatutuetxean.

HITZALDIA 19.00.- "Konstelazio familiarak" hitzaldia. Julian Etxeberriako Euskadiko Kutxan (doan).

DANBORRADA 19.00.- Umeen danborradarako entsegua (Bittor Sarasketa, 7).

Eguena 6

IKASTEN 10.00.- "La importancia de gestionar la diversidad en una sociedad cambiante", Equiaren eskutik. EPAn (Isasi, 39).

AURKEZPENA 12.30.- XXVI. Deba Beheko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren aurkezpena. Portalean.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA 16.30.- Txokolate-jana bertakoentzat. Egogain Jubilatutuetxean.

EGO IBAR ZINE KLUBA 17.30 eta 21.00.- "Sin nombre" (Zuz: Fukunaga). Hezkuntza Esparruan.

DENBORAPASAK

SUDOKUA

	8	4				3	7	
6	2		3		7		4	8
		6	4		1	8		
			5			4		
			2	6		8	7	
4	5		7		9		1	3
	1	7				2	8	

2	3	9	5	4	1	0	6	7
8	6	4	2	7	3	5	1	9
7	1	5	8	9	8	3	4	2
5	4	6	1	6	9	7	2	3
9	7	3	4	2	5	1	8	6
6	2	1	3	8	7	9	5	4
4	5	2	8	3	6	6	7	1
3	8	7	6	1	2	4	9	5
1	9	6	7	5	4	2	3	8

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

– Apirilaren 30era arte

CANDIDO BARCO-ren “Laos” argazki erakusketa. Klub Deportiboan.

KLUB DEPORTIBO-ko argazki taldearen “Aratosteak” argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*

JOSE LUIS IRIGOIEN-en argazki erakusketa. Arteka liburudendan (Artekale, 20. Durango).

– Maiatzaren 2ra arte

DAVID LOPEZ SIMON-en egurrezko artelanen erakusketa. *Topalekuan.*

EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA-ren taldekako erakusketa. *Portalean.*

EIBARKO IGNAZIO ZULOAGAko ikasleen EGUNGO ISLAK. *Portalean.*

– Maiatzaren 4ra arte

IMA ELORZA (eskulturak) eta **IMANOL ELORZA** (olioak). *Untzaga jubilatuen etxean.*

– Maiatzaren 1etik 31ra

29 ARGIZAIOLA LEHIAKETA argazki erakusketa. Klub Deportiboan.

KLUB DEPORTIBOko Argazki Taldearen lanak. *El Ambigú, Portalea taberna eta Untzagako Jubilatuenak.*

ikastaroak

– **Nazioarteko Sukaldaritza.**

Noiz: Maiatzak 18, 20, 25, 27 eta ekainak 1, 3, 8 eta 10, 19.00etatik 21.00etara Portalean. Matrikula: Maiatzaren 3tik 7ra, Pegoran (71 euro Eibarren erroladatutakoak, 118 besteak).

– **Argazkilaritza Maiatzean tailerrak.**

“*Retrato en estudio*”, Mamén Mari-rekin. Noiz: Maiatzak 15, 10.00etatik 14.00etara eta 16.30etatik 19.30etara. Portalean. Izen-ematea: argazkilaritza@gmail.com (doan).

“*Un estudio fotográfico en la calle*”. Noiz: Maiatzak 22, 10.00etatik 14.00etara. Untzagan. Izen-ematea: argazkilaritza@gmail.com (doan).

lehiaketak

– **Sanjuanak 2010 Eibarren kartel lehiaketa.**

Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzaren 14ra* arte, Pegoran.

– **Alkohol Gehiegikeriaren Kontrako Umorezko Pegatina Lehiaketa.**

Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzaren 14ra* arte, Pegoran.

– **2010-2011 Eskola Agenda argazki lehiaketa.**

Norentzat: 12 eta 18 urte bitarteko eibartarrentzat. *Maiatzaren 14ra* arte, Pegoran.

– **Li (buru-hausgarriak).**

LH-ko 2. mailatik aurrerakoentzat. *Ekainaren 14ra* arte, Liburutegian.

farmaziak

30, barixakua

EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

1, zapatua

EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

2, domeka

EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)

3, astelehena

EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Zulueta (S. Agustin, 5)

4, martitzena

EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

5, eguaztena

EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

6, eguena

EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

7, barixakua

EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

SOS delai	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00, 08.00, 08.50, 09.00 eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.50, 12.50, 13.50, 15.50, 18.50 eta 20.50. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.50etatik 15.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.50etara ordu, 19.50, 20.50 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 07.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.50etatik 18.50etara bi ordu, 19.50, 21.00 eta 22.00. **EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdi. **EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.50, 14.50, 18.50 eta 20.50. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.50, 14.50, 18.50 eta 20.50. **EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.50, 10.50, 11.50, 13.50 eta 18.50. **EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.50 eta 20.50. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.50 eta 19.50. **EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdi. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdi eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egutero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.54 eta 20.54. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Karlos Elgezuan (Amaña). 60 m². Logela bikoitza bi, egongela, sukalde handia eta komuna. 24.600.000 pezeta, negoziagarriak. Tel. 943-201657 edo 696-348630.

– Pisua salgai Eibarko erdigunean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena kanpora. Sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 629-533695.

– Duplexa salgai Elgetan. 85 m². 3 logela, egongela beheko suarekin, sukalde eta bainugela bi. Berogailua. Guztiz jantzia. Aukera ona. Prezioa adosteko. Tel. 685-751891. Idoia.

– Pisua salgai Bidebarrieta kalean. 2 logela, egongela, sukalde, komuna eta trasteroa. Eguzkitsua. Sartzeko moduan. Tel. 635-209084.

– Pisua salgai Polonia Etxeberria 3 logela, sukalde-jangela eta komuna. Berogailu indibiduala, gas naturalarekin. Sartzeko moduan. Garajea hartzeko aukera. Tel. 943-701652 edo 685-784850.

– Elgoibarko Basarte auzoan pisua salgai, garajearekin. 77 m². Eguzkitsua eta egoera onean. Bizitzera sartzeko moduan. Oso aukera ona. Tel. 647-372033.

– Errebal kalean pisua salgai. 4 logela, egongela, sukalde handia, komun bi, despaxoa eta terraza. Berritua eta argitsua. Deitu arratsalde. Tel. 605-772606.

– Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berritua. 25.000.000. pta. Tel. 659-687736.

– Pisua salgai Ipuruan, J.A. Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukalde despentsarekin, komuna eta trasteroa. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 661-291898 edo 610-603631.

1.2. Errentan

– Pisua alokagai Eibarren. Logela bi, egongela, sukalde eta komuna. Deitu 17.00etatik aurrera. Tel. 660-268797.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 618-714616.

– 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 608-474923.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 664-111706.

– Mutil batek logela alokatuko luke Eibarren, Bidebarrieta kalean. Tel. 630-392468.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 646-048823.

1.3. Konpartitzeko

– Eibarko neska arduratsua beste lagun bat behar du etxea konpartitzeko. Tel. 652-716135.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria. 22 m². Tel. 943-701652 edo 685-784850.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

3.2. Errentan

– Lokala alokagai Otaola Etorbidea, 27an. Gazteen kuadrila batentzat aproposa. Tel. 657-795679.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, baita gauzez ere, eta tabernako sukaldari moduan. Tel. 680-223378 edo 943-530132.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 649-044223.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 669-311395.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna moduan edo orduka. Tel. 626-246543.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak arratsalde zaintzeko. Tel. 659-222426.

– Mutila eskaintzen da sukaldari edo kamarero moduan. Tel. 686-077316.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo tabernan lan egiteko. Tel. 646-821678.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 691-808493.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 618-714616.

– Neska euskalduna eta arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 680-484679.

– Erizain laguntzailea eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 662-283671.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Interna edo orduka. Tel. 662-247584.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 680-516240.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu, garbiketa lanetarako edo kamarera moduan. Tel. 608-147559.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-582150.

– Mutila eskaintzen da kamarero moduan. Esperientzia. Tel. 688-687563.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 636-001196.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Geriatria ezagutzak. Tel. 638-899860.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Asteburuetan ere. Tel. 646-180072.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, arratsalde eta gauzez. Tel. 686-435056.

– Neska eskaintzen da garbiketa lanekin egin eta nagusiak zaintzeko. Tel. 656-493864.

– Gizezkoa eskaintzen da garbiketa, pintore, igeltsero... moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 686-274490.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota gauzez ospitalean egoteko. Esperientzia. Tel. 637-180723.

– Neska eskaintzen da umeak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 638-344377 edo 943-530795.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanekin egiteko. Goizez. Tel. 666-156651.

– Erizain laguntzailea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 658-030724.

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 649-808071.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 648-143804.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 680-223378.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 943-531903.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 618-096628.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu, kamarera moduan eta garbiketarako. Esperientzia. Tel. 608-376387.

– Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko: umeak, nagusiak, garbiketarako. Tel. 669-966611.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria kurtsua egina. Tel. 646-235195 edo 943-531903.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-223378.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 943-171583.

– Emakumea eskaintzen da externa moduan lan egiteko. Tel. 659-080186.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-973549. Karen.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 943-171583 edo 608-474923.

– Mutila eskaintzen da kamarero edo peoi moduan lan egiteko. Tel. 697-481489.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 943-531218.

– Neska eskaintzen da orduka lan egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 663-786976.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. 11.00etatik 17.00ak arte. Tel. 679-910991.

– Neska eskaintzen da etxeko edo garbiketa lanekin egin eta nagusiak zaintzeko. Tel. 666-008994.

4.2. Langile bila

– Komertziala behar da Euskaltelen. Tel. 617-724796.

– Ile-apaintzailea behar da, 1. mailako ofiziala. Tel. 943-254512.

– Emakumea behar da moda denda baterako. Tel. 622-093424.

– Asteburuetarako sukaldari-laguntzailea eta aste osorako terrazan zerbitzuko kamareroa (ezinbestekoa euskeraz jakitea) behar dira Klub Deportivoan. Tel. 943-207044.

– Sukaldari laguntzailea behar da. Ezinbestekoa autoa izatea. Tel. 679-950907.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– EGA titulodun injeniaritza ikasleak Batxilergora arteko ikasgaien klase partikularrak ematen ditu. Orduka. Tel. 679-560138.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Kotxe-kapota salgai, silla eta maxicoxiarekin (Bebe Confort urdin marino). Silla-baston eta autoarendakosillarekin. Tel. 617-256466.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Anorak moduko urte biko ume baten txaleko marroja galdu da Untzagako bankuetan. Balio sentimental. Tel. 635-711528.

– Zapatuko ikastolako jaialdian zilarrezko orratza galdu nuen. Balio sentimental du. Tel. 696-781138. Eburne.

– Hilaren 9an pultsera galdu nuen. Tel. 678-785247.

– Ezkontz-eraztuna galdu da hilaren 10ean, Usartza-Kalamua tartean. Zilar eta beltz kolorekoa. Tel. 650-435436.

LA SALLE AZITAIN IKASTETXEA

2010-2011 ikasturterako eskaintza

BATXILERGOAK (A eta D)

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA / GIZARTE ZIENTZIAK

**Badugu
ikasteko
leku bat
zuretzat!**

La Salle
Eibar


Euskadi
2009

943 121 698

**maiatzaren
3tik 12ra**

Inoiz ez da azkarregi
heziketarik onena jasotzeko.

Èhun urte baino gehiagotan Aldatze Eibarko heziketan erreferentzia izan da. Gure inguruko beharrei erantzuteko, garbituzko pedagogia, hizkuntzak, teknologia berriak, EFQM... izan dira eta dira oraindik gure lanaren oinarriak.

MATRIKULA ZABALIK
Batxilergoko
modalitateetan

Lau hizkuntza
Marrasketa, teknika
Biologia
Ekonomia
etabar



HEZIKETA INTEGRALA ETA KALITATEZKOA KRISTAU HUMANISMOAN OINARRITUTA

ALDATZE IKASTETXEA MENDI OXO BAT HEZTEN

ELEBIDUN IKASTETXEA

2 URTEETIK 18RA BITARTETIKO IKASLE NESKA-MUTILAK

AZKEN 15 URTEETAN SELEKTIBITATEKO FROGA %100EK GAINDITU DITUZTELARIK
IKASLEEN BANAKAKO JARRAIPENA

ESKOLAKO ETA LANERAKO ORDUTEGIAK BATERAGARRI EGITEKO ZERBITZU ESKAINTZA

aldatze



ALDATZE

Colegio Santa Maria
de la Providencia

Aldatze kalea, 5 - Eibar - Gipuzkoa
TEL: 943 79 11 50 - aldatze@aldatze.org

Ignacio Zuloaga Institutua

Batxilergoan espezialduak

Artistikoa (A eta D ereduak)

Giza eta Gizarte zientziak (D)

Zientifiko/teknikoa (D)

ELKARTRUKAK

Europako ikastetxeekin
1. mailan Ingalaterrara
2. mailan Alemaniara

Ikastetxe erabat euskalduna
Ikasle eta irakasleak bat eginda
euskeraz zabalatzeko hainbat ekimen antolatzen

D ereduan 29 URTE

non dago aurrerapena?
euskeraz bizi dena?
aukerarik onena?
non eman izena?

Ignacio Zuloaga institutuan
hor daukazu dena!